

# ELGOIBAR IKASTOLA ELKARBIZITZA PROIEKTUA



## **AURKIBIDEA.**

**1-MARKO LEGALA.**

**2-SARRERA.**

**3-IKASTOLAKO BALIOAK.**

**4-ELKARBIZITZA**

**5-BITARTEKARIAK.**

**6-DIAGNOSIA.**

**7-ELKARBIZITZA PROIEKTUKO ILDO NAGUSIAK ETA HELBURUAK.**

**7.1-Ildo nagusiak**

**7.2-Helburuak**

**8-IKASTOLAKO TUTORETZA-PLANA.**

**8.1-Bizikidetzarako irakaslearen joerak.**

**8.2-Bizikidetzarako ikasleen joerak.**

**9-OHIKO DIZIPLINA ARAU-HAUSTEAK.**

**10-GATAZKEN TRATAERA.**

**10.1-Definizioa**

**10.2-Analisia eta ebazpenerako urratsak**

**11-BERDINEN ARTEKO TRATU TXARREN AURREAN NOLA.**

**11.1-Tratu txarren definizioa eta protokoloa.**

**11.2-Ikastolan indarkeria ekiditeko prebentzio neurriak.**

**12-ELKARBIZITZA-TALDEA.**

**12.1-Osaketa.**

**12.2-Eginkizunak.**

**12.3-Funtzionamendua.**

**13-IKASTURTEKO ELKARBIZITZA-PLANA.**

**14-ELKARBIZITZA-BEHATOKIA.**

**14.1-Definizioa.**

**14.2-Funtzioak.**

**14.3-Kideak.**

**14.4-Funtzionamendua.**

## 1.- MARKO LEGALA

1993ko otsailaren 19ko **EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN LEGEAK**, bere xedeen artean ondoko hauek zehazten ditu: **“Elkarbizitza demokratikoa ahalbideratzen duten balioetan oinarriturik ikasleen nortasuna askatasunean garatzea eta heziketa osatua bultzatzea, besteak beste, gaitasun eta jokaera kritikoa, berdintasuna, zuzentasuna, partaidetza, aniztasunarekiko eta kontzientzia askatasunarekiko begirunea, elkartasuna, gizartearekiko kezka, elkar eramankortasuna eta elkarrenganako begirunea, bai eta giza eskubideen aldeko jarrera ere”<sup>1</sup>, “bakerako, askatasunerako eta herrien arteko lankidetzeta eta elkartasun-ideiak sustatzeko heziketa”<sup>2</sup> eta “ematen den heziketaren hezkidetasuna ziurtatzea”<sup>3</sup>.**

**EAEko DERRIGORREZKO HEZKUNTZAREN CURRÍCULUM berriak** bere izaera kompetentziala azpimarratzen du eta “Hezkuntzaren lau oinarri nagusiak” bildu, horietariko bi **“Elkarrekin bizitzen ikastea”** eta **“Pertsona gisa garatzen ikastea”** direlarik.

-Horrela, **XEDAPEN OROKORRETAN** (1. kap, 3. art, 6) definitzen du: *“Ikastetxeetako elkarbizitza egokia izan dadin, bake positiborako, giza eskubideetarako, justiziarako, elkartasunerako eta inklusiborako heziketa eman behar dute ikastetxeek. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sustatu egingo du ikastetxeko proiektu osoak egin daitezen, horien xedea bada bake-kultura bat sortzea eta oinarritzat hartzen badituzte errespetuan, elkarrizketan eta emozioen erregulazioan eta kontrolean ardaztutako jardunbideak. Proiektu horiek, halaber, oinarri izan behar dute gatazken trataera etikoa eta hezkuntza-komunitateko pertsona guztien eskubideak eta betebeharrak”.*

- OINARRIZKO HEZKUNTZAREN XEDEen artean (1. kap, 5. art, a) adierazten du: *“Ikasleak prestatzea pertsona helduen bizitzari ekiteko; bizitza oso bat izateko, gizabanako diren aldetik; gizarteko herritar aktibo izateko; eta izadiaren zaintzarekiko eta garapen iraunkorrekiko konpromisoa duten pertsonak izateko”.*

-Hezkuntza-kompetentzia orokorren barnean (1. kap, 6. art, d), e) eta f), beste batzuen artean, definitzen ditu:

- Elkarrekin bizitzen ikastea, eta, berariaz, **hartu-eman positiboak izaten** eta, gatazka-egoeretan, **elkarrizketara eta negoziatziora jotzen** ikastea. Halaber, **gogoz eta demokratikoki parte hartzen** ikastea, lankidetzan jarduten eta taldean lan egiten ikastea, eta **aniztasuna errespetatzea**, elkartasun-jarrerak erakutsiz.
- **Pertsona gisa garatzen** ikastea, norbera izanda, eta **emozio negatiboak kontrolatzea eta nork bere burua modu positiboan eta errealistan balioestea**. Pertsona autonomoa izatea, norberak **hartutako erabakien ardura hartzea**, eta **printzipio etikoei jarraitzea**.
- **Egiten eta ekiten** ikastea, **erabakiak eta ardurak hartzeko** ekimena izatea, esfortzua eta zailtasunak gainditzeko ahalegina balioestea, eta ekintzailea izatea, bizitzaren alor guztietan.

-Amaitzeko, OINARRIZKO KONPETENTZIEI DAGOKIONEZ4 (1. kap, 7. art, 2) azpimarratu nahi ditugu:

“f) **Gizarte- eta hiritar-kompetentzia**” eta “h) **Norberaren autonomiarako eta ekimenerako kompetentzia**”. III eranskinean garatzen dira (6 eta 7 puntuak).

- **Gizarte- eta hiritar-kompetentzia.**

Kompetentzia honek barne hartzen ditu zenbait gizarte-trebetasun, aukera ematen dutenak balioen eta **interesen gatazkak elkarbizitzaren parte direla** jakiteko, gatazka horiek jarrera eraikitzailez konpontzeko eta erabakiak autonomiaz hartzeko. Azken erabaki horiek hartzeko, gizarteari buruzko jakintza erabili eta balio-eskala bat baliatu behar da. Balio-eskala horrek hausnarketa kritikoaren eta elkarrizketaren bidez egina izan behar du, lurralde, herrialde edo komunitate bakoitzeko oinarrizko kultura-ereduak aintzat hartuta.

Alderdi etikoa eskuratzeko ikasleak ulertu behar du jarrera pertsonal guztiak ez direla etikoak, baldin eta jarrera horiek ez badituzte **printzipio eta balio unibertsalak** (esaterako, **Giza Eskubideen Deklarazioan jasotakoak**) barne hartzen.

Horrenbestez, hauek dira kompetentzia honek barne hartzen dituen trebetasunetako batzuk: **nork bere burua ezagutzea eta balioestea**; gauzak testuinguru anitzetan komunikatzen jakitea; **norberaren ideiak adieraztea eta gainerako pertsonenak entzutea**; gainerako pertsonen lekuan jartzeko gai izatea eta solaskidearen ikuspuntua ulertzea, **norberarenarekin bat ez etorri arren**; eta **erabakiak hartzea** komunitate-bizitzako esparru guztietan, **norberaren interesak eta taldearenak batera baloratuz**. Horrekin batera, ikasleek pertsonen arteko diferentziak balioetsi eta **kolektibo guztiek eskubide berdinarak** dituztela **aintzatetsi** behar dute, eta bereziki **onartu emakumeen eta gizonen arteko eskubide-berdintasuna**. Ikasleek elkarrizketara eta negoziatziora jo behar dute, **adostasunetara iritsi eta gatazkak konpontzeko, bai esparru pertsonalean, bai sozialean**

Laburbilduz, hauek dira gizarte- eta hiritar-kompetentziaren ezaugarri nagusiak: **gizarte-errealitatea ulertzea**; balio eta jardunbide demokratikoetan oinarritutako irizpide etikoak

erabiltzea elkarbizitzari eta gatazkei aurre egiteko; eta herritartasunaren jarduera-esparrua irizpide propioz erabiltzea, bakea eta demokrazia eraikitzen laguntzea, eta herritarren eskubide eta betebeharrak jarrera eraikitzailez, elkartasunez eta arduraz erabiltzea eta betetzea.

▪ **Norberaren autonomiarako eta ekimenerako kompetentzia.**

Kompetentzia honek eskatzen du, alde batetik, elkarrekin lotutako zenbait **balio eta jarrera pertsonalen kontzientzia** izatea eta horiek aplikatzea. Hona balio eta jarrerok: ardua; irmotasuna; nork bere burua ezagutzea eta autoestimua izatea; sormena; autokritika; kontrol emozionala; hautatzeko, arriskuak kalkulatzeko eta arazoei aurre egiteko ahalmena izatea; eta berehala asebetetzeko premia atzeratzeko, akatsetatik ikasteko eta arriskuak hartzeko ahalmena izatea.

Bestalde, norberaren autonomiarako eta ekimenerako kompetentziak barne hartzen du hautuak irizpide propioei jarraituz egiteko kompetentzia, proiektuak sortzeko kompetentzia, eta **norberak egindako hautuak eta norberaren planak**, proiektu indibidualetan nahiz talde-proiektuetan jasoak, aurrera eramateko ekintzak egiteko kompetentziaa izatea. Hori guztia arduraz egin behar du ikasleak, bai bizitza pertsonalean, sozialean nahiz lan-esparruan

Norberaren autonomiak eta ekimenak, sarri, beste pertsona batzuen parte-hartzea eskatzen duenez, **harremanetarako, lankidetzarako eta talde-lanerako gizarte-trebetasunak** izatea eskatzen du kompetentzia honek; hala nola, gainerako pertsonen lekuan jartzen jakitea, gainerako pertsonen ideiak balioestea, elkarriketatzea eta negoziatzea. Halaber, asertibitatea landu behar du ikasleak, norberak hartutako erabakiak behar bezala jakinarazteko eta lankidetzeta-giroan eta malgutasunez lan egiteko.

Kompetentziaren gizarte-alderdi horren baitan, **proiektuen lidergoarekin lotutako zenbait trebetasun eta jarrera** izan behar ditu ikasleak; hala nola, bere buruarengan konfiantza izan, enpatia, hobetzeko grina, elkarriketatzeko eta lankidetzan aritzeko trebetasuna, denbora eta egitekoak antolatzea, eskubideak baieztatzeke eta defendatzeko ahalmena, eta arriskuak hartzekoa.

Ikasleak **kompetentzia pertsonalak eta gizarte-kompetentziak bereganatuko** baditu, ikasleak bere burua ezagutu behar du eta harreman egokiak ezarri behar ditu bere buruarekin.

2005ko otsailaren 18ko **EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LEGEAK**, curriculumari dagokionez, ondoko hau zehazten du: *“Hezkuntza-Administrazioak oinarritzko printzipiotzat ezarriko du hezkuntza-maila guztietan indarkeriazko joerak prebenitzea, eta eguneroko bizitzari buruzko eduki eta aldi zehatzak ezarriko ditu hezkuntza-maila guztietan. Eduki eta aldiotan, honakoekin zerikusia duten alderdiak eta edukiak integratuko dira: **etxearekin, pertsonen zainketarekin, harreman pertsonalen funtzionamenduaren ezagutzarekin, eta gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak eta sexuen berdintasunaren eta aniztasunaren errespetuan oinarritzen diren elkarbizitza-ereduak ikastearekin.**”<sup>5</sup>.*

**Apirilaren 19koa**, EUSKAL AUTONOMIA ELKARTEKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASTETXEETAKO IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREI dagokion **160/1994 DEKRETU**tik eskubide hauek azpimarratuko ditugu: Batetik **“Nortasuna askatasunean garatzea** demokrazia-ahalbiderik gabe baliogabetzen duten baliogabetzen **oinarrituz heziketa ematea ikasleei.**”, bestetik **“afektibotasunaren garapen armonikoa, autonomia pertsonalarena, autoestimarena eta besteekin harremanetan izateko gaitasunarena”**; **eta, azkenik, honakoari** **“bere osotasun fisiko, psikiko eta morala eta beren duintasun pertsonala errespetatuak izateko eskubidea dute ikasle guztiek eta inola ere ezingo zaie tratu laido garri edo degradatzaile eman ez eta tratu txar fisiko eta morala duten zigorrik eman ere.**

Ikasleen betebeharren barruan azpimarratu nahi dugu: **“Eskola-elkarteko kide guztien kontzientzi-askatasuna eta ideologai, erlijio, moral eta etika-mailako uste sendoak errespetatzea, halaber, duintasuna, integritatea eta intimitatea”** eta **“jaiotza, arraza, sexua, ideologia, hizkuntza, kultura, erlijioa edo iritzia edo beste edozein zirkunstantzia pertsonal edo soziala dela bide, eskola-elkarteko kiderik ez diskriminatzea.”<sup>6</sup>.**

Azkenik, **ARARTEKOAK**<sup>7</sup> 2006ko **“Elkarbizitza eta gatazkak bigarren hezkuntzako ikastetxeetan”** informean eginiko **GOMENDIOAK** aipatuko ditugu:



- **Ikastetxeen parte-hartzea bultzatzea, elkarbizitzaren hobekuntzarako programa eta planetan.** Praktika onak hedatzea eta esku-hartze programak barreiatzea, ebaluatu, eta eraginkorrak direla baieztatu ondoren.
- **Ikastetxeei babesa ematea baliabideen, aholkularitzaren, irakasleen prestakuntzaren eta elkarbizitza planak martxan jartzen lagun dezaketen material zehatzen bidez.**

## 2.- SARRERA

Elkarbizitza-Proiektu honen xedea, Ikastolako oinarrizko eskubideak, askatasuna eta bizikidetzaren printzipio nagusiak garatzeko tresna eraginkor baten jabe izatea da.

Gure Ikastolako oinarrizko funtzionamendu eta elkarbizitzarako arauak eta hezkuntza-komunitateko partaide guztien eskubideak eta betebeharrak Barne Araudian eta AJAn jasoak daude eta estamentu guztien artean adostuak izan dira.

**Elkarbizitza-Proiektu** hau osatzeko, **Hezkuntza-Proiektua** eta **AJA** hartu ditugu Erreferentzia-Marko gisa. Horrela, gure printzipioetan oinarritutako Proiektu koherente bat sortu dugu.

ELGOIBAR Ikastolako Hezkuntza-Proiektuan gure IZAERA, EGINKIZUNA, IKUSPEGIA eta BALOREAK definitzerakoan, honako FUNTSEZKO ezaugarri hauek agertzen dira:

-Erakunde plurala garela, Euskal Herrian dauden ideia, portaera sozial, politiko, filosofiko eta erlijioso ezberdinen elkarbizitzarekiko errespetu osoarekin.

-Eskola konpentsatzailea izango da ikastola, inolako diskriminaziorik gabe, maila kultural, sozial, ekonomiko, sexu eta arraza desberdineko pertsonei zabalik dagoena eta aukera berdinak eskainiko dizkiena.

-Heziketa bukatutakoan, geure Curriculumaren ildoaren arabera, ikasleak gazte euskaldunak, arduratsuak, autonomoak, kritikoak, solidarioak, demokratikoak, parte-hartzaileak eta kulturaz ongi jantziak izatea.

Dokumentu hau gauzatzea, ikastolako estamendu guztien lana izan da (Irakasle, familia eta ikasle). Bertan, eguneroko bizikidetzaren azterketa egin da sektore desberdinetan eta proposamenak Ikastolako estamentu eta organo desberdinetan (Klaustroa, Zuzendaritza Batzordea, Kontseilu errektorea, Orientazio Derpartamendua, ikasleen ordezkarien bilerak ...) eztabaidatuak eta adostuak izan dira.

ELGOIBAR Ikastolaren IDENTITATE PRINTZIPIOAK atalean berriz, honako hauek jaso ditzakegu:

- ❖ **Eskola barneratzaile edo guztiontzako eskola**
- ❖ **Pertsona eta gizartea uztartzen duen eskola**
- ❖ **Garapen jasangarria zaintzen duen eskola**
- ❖ **Bizikidetzaren lantzen duen eskola**

Azken printzipio horren helburua Ikastolan nahiz kanpoan ikaslea askatasunez eta zuzentasunez hezi eta egoki gizarteratzeko giro eta bitartekoak eskaintzea da. Hori dela eta, Elgoibar Ikastola ondoko hauetan saiatzen da:

- Elkartasunean hezten.
- Nork bere burua haintzakotzat hartzen, alegia nork bere buruaz irudi baikorra izaten, eta nork bere burua hobetzen.
- Gizabanakoon dibertsitatea (fisikoa, gaitasunezkoa, sexukoa, soziala, ekonomikoa, iritziaren arabera eta ideologikoa nahiz sinesmenari dagokiona) onartuz, ulertzen eta errespetatzen.
- Dibertsitateak sortzen dituen gatazkak elkarrizketaz eta jarrera tolerantiaz bideratzen.
- Giza eskubideen eta pertsonaren duintasunaren begirunean oinarritutako hezkuntzaren aldeko ahaleginak berresten, edozein xede edo egokieraren gainetik.
- Iraganean, orainaldian edo etorkizunean Giza Eskubideen urraketaren edozein justifikazioaren aurrean jarrera kritikoa indartzen.
- Eskubide horien haustearen ondorio diren biktimekiko elkartasuna eta laguntza erakutsiko dituzten jarduerak sustatzen.
- Benetako bizikidetzaren demokratikoa sostengatuko duten balioak eta jarrerak indartzen, hezkuntza esparrutik hasita gizarte osoraino helduz.
- Gure hezkuntza-komunitatean eta gure gizartean kultura demokratikoa finkatuko duten jarduerak adostuak eragiten.

### 3.- IKASTOLAKO BALIOAK

Balioak, etikaren ikuspegitik, gizarte bateko harremanak antolatzeko lagungarri diren arau edo orientabideak dira. Gure ikastolan bizikidetzaren bermatzeko lantzen ditugun balioak hauek dira:

**Euskara eta euskalgintza**

**Bikaintasuna**

**Berrikuntza**

**Lankidetzaren - Elkarlana eta Partehartzea.**

**Portaera arduratsua. Elkarbizitza- Jendetasun arauak**

**Aniztasuna .Tolerantzia, elkarrizketarako joera**

**Errespetua .Askatasuna, Erantzukizuna**

**Ingurumenarekiko konpromisoa**

**Elkartasuna, Solidaritatea**

**(Ikus balioen definizioa Bizikidetzaren Planaren eranskinean)**



#### **4.- ELKARBIZITZA**

Denon arteko lankidetzak (irakasle, ikasle, familia, hezitzaile, monitore...) eta konfiantza, errespetuzko giro batean gertatzen dena izango litzateke, non gure ideiak eta iritziak askatasunez adieraz ditzakegun, guztion artean hartutako erabakiak errespetatuz, elkarri entzuteko erakutsiz eta arazoak konpartituz. Bizikidetzak, beraz, beharrezkoa du aurrez aipaturiko gizataldeek osaturiko gizabanakoen interakzioa. Hori dela eta, maila desberdinetako harremanak zehazten ditugu.

**( ikus eranskina)**

#### **5.- BITARTEKARIAK**

##### **5.1- Barne-Araudia.**

Erreferentzia puntua da elkarrekin lanean aritzeko. Arautegiaren indarra bere adostasun-mailan dago lehenik eta behin; bestalde, jokabide edo erantzun bateratuak ahalbideratzen ditu subjektibotasunerako joerak murriztuz.

##### **5.2- Irakasle-talde iraunkorra eta inplikaturia.**

Irakasle-talde tinkoa, inplikaturia eta aurre egin nahi duena dugu. Ardura asko eta asko bere gain erortzen da eta, horren jabe denez, inplikaturia sentitzen da Ikastolaren etorkizunean. Horrela, gehiengo zabal batengatik, esan daiteke, dedikazio eta konpromiso maila handikoa dela.

##### **5.3.- Balioak aurrez aipatu bezala, HPan definituak daude, irakasle, ikasle, familia eta langileen adostasunarekin.**

Ezinbesteko erreferentzia puntua da, seriotasuna eta helmuga ipintzen dizkiona gure eguneroko lanari. Lan-ildoak markatzen du.

##### **5.4.- Arazoak bideratzeko hainbat tresnaren jabe gara. (Orientazio-Zerbitzua, Gizarte-Zerbitzuak, Elkarbizitza-Taldea...)**

Azken urteotan aipaturiko baliabideak modu egokiagoan erabili ditugu, arlo honetan sortzen diren eta sor litezkeen arazoaren aurrean. Halaber, zenbait ekintza-protokolo zehaztuta eta sistematizatuak ditugu, hala nola: arazo familiarren aurrean nola jokatu, laguntza-gelarako eskabideak, gizarte-zerbitzuekiko harremanak, bullying-aren protokoloa, banaturiko gurasoekin erabili beharreko protokoloa....

##### **5.5- AJA (Antolamendu eta Jardun-Araudia).**

Arautegi honen helburua honako hau da:

Ikasleek beren eskubideak baliatzen eta beren betebeharrak betetzen ikasi behar duten bizikidetzak esparrua arautzea, gizartearen eskubide osoko herritar gisa integratu daitezkeen. Ikasleek gizarte demokratiko plural, tolerantzia eta berdintasunean oinarrituan elkarrekin bizitzen ikas dezaten, dagozkien betebeharrak betetz, dagozkien eskubideak baliatuz eta ikastolako gainerako kideen eskubideak errespetatuz.

## 6.-DIAGNOSIA

Honen helburua ikastetxean elkarbizitza nolakoa den aztertzea da. Horretarako, elkarbizitza hobetzeko adierazgarriak diren ekintza hezitzaile eremuak analizatuko dira.

Diagnostiko horrek errealitatean kokatuko gaitu, ikastetxearen profila zehaztu eta, hortik abiatu, hausnarketa-maila eta ekintza hezitzaile sakonagoak eratzeko prozesu-bideak zabaldu.

Dinamika horren helburua ez da kasuen zerrenda egitea, baizik eta gatazkak sorrarazten dituzten aldagaiak analizatzea. Hori dela eta, ikastetxearen profila egiteko eta bertako ondoezak zehazteko, KAUSAK detektatzeko izango litzateke lagungarria. Azken finean, helburua hau izango da: elkarbizitza hobetzeko planaren helburuak finkatzeko orduan beharrezko informazioa lortzea.

**(Ikus eraskina)**

## 7.- ELKARBIZITZA-PROIEKTUKO ILDO NAGUSIAK ETA HELBURUAK.

### 7.1.- Ildo nagusiak

**Elkarbizitzarako Hezkuntzaren ildo nagusiak gure ikastolan honako hiru norabide hauetan banatuko genituzke:**

7.1.1.- Giza balioen lanketa programatua eta sistematizatua, hasi Haur Hezkuntzatik eta DBH bukatzeraino. Horretarako, lehenbizi, batik bat lantzea komeni zaizgun balioak zehaztu ditugu. Ondoren, gure testu-liburuen eta gai honi buruzko material pedagogikoaren azterketa egin eta egiten jarraitzen dugu. Eta, azkenik, programaketa zehatzak diseinatu eta aplikatu ditugu.

7.1.2.- Eskolan gerta daitezkeen gatazken ebazpenerako eta berdinen arteko tratatu txarren aurrean jarraitzeko protokoloa eta ekinbideak tratatzen dituzten metodoetan eta estrategietan trebatzen eta eguneratzen saiatzen gara.

7.1.3.- Formakuntza-saioak, hitzaldiak eta abar. irakasleengana, familiengana nahiz ikasleengana zabaltzen ditugu. Berritzeguneak, Ikastolen Elkartek, Udalak antolatutakoetan parte hartu eta elkarlanean antolatzen dugu.

### 7.2.- Helburuak

7.2.1.- Elkarbizitza-giro egokia lortu ahal izateko ekimen prebentiboak garatu.

7.2.2.- Kideen arteko harremanak elkarrenganako errespetuan, elkartasunean eta elkarbizitza-arauen barneratzean oinarritu.

7.2.3.- Gatazkak ekidin eta jokabide larrienak gutxitzeko gelako giroa nahasten edo txartzen duten jokaera disruptiboak ahal den guztia gutxitu.

7.2.4.- Gatazken konponbidea era hezitzailean ikasle eta irakaslearen arteko negoziazioaren eta ahaleginaren bidez konpontzeari lehentasuna eman.

7.2.5.- Jokabide arazoaren aurrean koherentziak jokatu, irakasle guztien interbentzioak ildo beretik joan daitezkeen, ikasleak nahas ditzaketen kontraesanak ekidituz.

7.2.6.- Jokabide disruptiboaren arrazoiak aztertu eta, ahal den neurrian, konpondu, aurrerago sor daitezkeen elkarbizitza arazoaren aurrean nola jokatu irakatsiko diguten esperientzia gisa erabiliz.

7.2.7.- Ondorio negatiboak dituzten neurriak elkarbizitza-arazoak konpontzeko azken baliabide gisa erabili, gainerako motibazio eta estrategiek huts egiten dutenean eta interbentzio ezak kalte gehiago sor dezakeenean baino ez.

7.2.8.- Hezkuntza-komunitateko kide guztien formazioa sustatu, gatazkak tolerantziaz eta indarkeriarik gabe konpon daitezzen

7.2.9.- Gehiegizko indibidualismoaren aurrean talde lana sustatuz, lan solidario eta kooperatiboarekiko interesa garatu.

7.2.10.- Laburbilduz, gure ikastolaren funtsezko ezaugarrietan aipatzen genuen bezala, ikasleak arduratsu, autonomo, kritiko, solidario, demokratiko, parte-hartzaile eta giza-legez jokatzeko dutenak izan daitezzen lortzea.

## 8.- IKASTOLAKO TUTORETZA- PLANA .

**Zehar-lerroak, Balioak eta Elkarbizitza** bezalako gaiak betidanik landu izan ditugu Ikastolan, hasi txikitatik eta ikasketak gurean bukatu arte. Batetik, maiz, testu-liburuek emandako jarduerak zirela medio, beste hainbatetan lortutako beste zenbait materialen bidez (Osasunkume, Bakearen hezkuntzako materiala, Elkartasun kanpainak, Ingurugiroari buruzkoak, Sexu-heziketa ikastaroak, maskulinitate-eta autodefentsa-ikastaroak, drogomenpekotasunaren aurkako kanpainak, baloreetan oinarritutako zinea, kontsumismoa, heziketa emozionala, etab.)

Gaur egun, Haur Hezkuntzako URTXINTXA eta Lehen Hezkuntzako TXANELA proiektuak daramatzagu aurrera eta, globalizatuak diren neurrian, balio eta baloreen lanketa bertan txertaturik dago. Horrela, koherentea izateaz gain, lotura bat mantentzen da bi etapa hauetako ikasturte guztien artean. Bestalde, Foru Aldundiak bultzatutako adimen emozionala ere hiru etapetan HH, LH eta DBH n lantzen dugu.

Hori guztia tutoretza-saioretan lantzen dugu sistematikoki. Bestalde, gertaera baten une bera ere erabiltzen dugu balio edo balore bat lantzeko.

### 8.1-Elkarbizitzarako irakasleen jokaerak:

-Elkarbizitzarako hezkuntza metodo inductibo, zuzen, aktibo eta motibatzailean oinarritu behar da.

-Komunikazio-gaitasunari berebiziko garrantzia eman behar zaio eskola-orduetan, eztabaidatzen ikastea beharrezkoa baita.

-Esaten eta egiten dugunaren arteko lotura ikasleei argi, esplizituki erakutsi behar diegu (neska-mutilek irakaslearen koherentzia sumatu behar dute) . Haiei eskatzen zaiena gudan bilatu behar lukete.

-Komunikazio-espazioak sortu behar ditugu eta interlokuziorako prest egon.

-Autoritatea arrazoibidearekin orekatu behar dugu ( diziiplina positiboa)

-Ikasgelan sor daitezkeen auziak inplikatuekin ebatzen saiatu behar dugu (konponbiderako konpromisoa)

-Ikasleen partaidetza eta zeresana suspertu eta haien nortasuna zainduko ditugu.

## **8.2-Elkarbizitarako ikasleen jokabideak:**

- Ingurukoekin dituen harremanetan konprometiturik dagoela erakutsi behar du (ikaskideekin, irakasleekin, familiekin...)
- Bidezkoa iruditzen ez zaionarekin kritiko azaldu behar du, ikuspuntuak argudiatuz.
- Autoestimua, kontsiderazioa eta errespetua norberarengan eta besteengan baduela frogatu behar du.
- Gatazkak modu baketsuan, arrazoibidean, ebaz daitezkeela konturatu behar du.
- Elkarbizitarako arauak ezinbestekoak direla barneratu behar du.

## **9.- OHIKO DIZIPLINA ARAU-HAUSTEAK**

Diziplina ezin dugu jarrera ezezkor baten aurrean zigor sistema bat bezala ulertu, baizik eta pertsona bakoitzak bere betebeharrak kunplitzea errazteko baliagarria den barne ohitura bat bezala. Horrela ulertuz, diziplina norberak, bere askatasun pertsonalaren arabera, menderatzeko gaitasuna litzateke.

Gurean, diziplina bideratzeko, AJA dokumentua dugu eta bertan azaltzen dira funtzionamendu-arauak. Horiek baitira, hain zuzen, bizikidetasuna bermatzen dutenak. Arau hauek zehatzak eta H.Parekin koherenteak dira, modu argi eta ulerterrazean adieraziak eta arrazoituak daude, familia, ikasle eta irakasleek ezagutuak eta onartuak izan dira.

Hala ere, arauak, berez, ez dira nahikoa kausa-ondorio bezala aplikatzen baditugu, arauak betetzen ez dituen bere okerre edo akatsez jabetzen ez bada. Diziplina instrumentu hezigarri bihurtu nahi dugu. Diziplinak ikasleen erantzukizunaren garapena ahalbideratu behar du.

Diziplina eza maila, garrantzi eta maiztasun desberdinetakoa izan liteke, beraz, kasu askotan elkarrizketa bat aski izan daiteke egoera zuzentzeko.

Beste batzuetan, ordea, beste erremediorik ez balego edota komenigarria ikusiko balitz, neurriak hartzea jo beharko genuke, gure AJA dokumentuan azaltzen den protokolo eta oinarri pedagogikoekin.

Diziplina arau-hauste bat edo egoera gatazkatsua gertatzen denean, gertaera izan duen pertsonak bideratuko du arazo horrek ikaslearengan izango duen eragina. Dena den, beti bete beharko da gertaera adierazmena, web orriko dagokion fitxan beteko du, gertatu dena eta eman diren pausoak azalduz, horrela urtean gertatutako ekintzen erregistro bat izan dezagun baita nola bideratu diren ere. Bestalde jarreraen berri emango zaio familiari.

Ez-ohiko egoera gertatzen denean, irakasleak bere etapa-arduradunari edo elkarbizitza-taldeari, berri eman eta laguntza edo aholkua eska diezaioke. Noizbehinka, elkarbizitza-taldeak gertaeren jarraipena egingo du. Hartutako neurrien ondorioak nabarmenak direnean edo izango direnean, ikasketa-buruak, elkarbizitza-taldeak, edota zuzendaritzak eta kontseilu erretoreak esku-hartu beharko du.

Lehen aipatu bezala, Ikastolako AJA dokumentuan agertzen dira ondoren aipatzen diren arlo hauek guztiak:

- Eskubide eta betebeharrak.
- Hutsegiteak eta ondorioak.

- Arau-hauste motak : arinak , larriak eta oso larriak.
- Hutsegite mota bakoitzari dagozkion ondorio estandarrak.
- Dizplina-espedienteak.

(Ikus eranskina eta AJA dokumentua)

## 10.- GATAZKEN TRATAERA

### 10.1-Definizioa:

Bizitzari dagokion errealitatea da.

Giza harremanak izaten diren eremuetan gertatzen da.

Aldaketarako aukera da.

Konponbideak, akordioak aurkitzeko aukera da.

Desberdinen arteko lankidetzarako aukera da.

### 10.2-Gatazken analisia eta ebazpenerako urratsak:

- Gatazkaren **ZERGATIAK** ANTZEMAN.
- Gatazkaren **PROTAGONISTAK** ZEIN DIREN ARGITU.
- Gatazkaren **BILAKAERA** EZAGUTU.
- Gatazkaren **TESTUINGURUA**.

(Ikus eranskina)

## 11.- BERDINEN ARTEKO TRATU TXARREN AURREAN NOLA JOKATU

### 11.1 Tratu txarren definizioa eta ezaugarriak

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Sailburuordetzak aurkeztutako dossier batean ( 2005), bullyingaz ondorengo definizioa azaltzen da: ***“Ikasle batek erasoak pairatzen dituela edo biktima bihurtzen dela esan ahal izateko, etengabe eta aldi berean jasan behar ditu ikasle batek edo batzuek ematen dizkioten tratu txarrak” (Olweus 1998).***

Beraz, berdinen arteko tratu txarra identifikatzen dugunean, Hezkuntza-Sailak aurkeztutako protokoloa jarraituko dugu. Hau da: izan dituen ezaugarriak, motak, ondorioak, esku-hartzeak, eraman beharreko protokoloa( informazio bilketa, informazio gurutzatzea eta jarduera plana).

### 11. 2.- Ikastolan indarkeria ekiditeko prebentzio-neurriak

( Ikus eranskina)

## 12.-ELKARBIZITZA-TALDEA

### 12.1-Osaketa:

Elkarbizitza-batzordeko burua zuzendaria da. Batzorde horretako partaideak hauek izango dira: orientatzailea, ikasketa burua eta, beharra dagoenean, etapa/ziklo arduraduna eta ikaslearen tutorea edo gertaera gertatzean zegoen irakaslea.

Zuzendaritza-Taldearen esku dago batzordean aztertu beharreko gaiaren edo auziaren arabera estamentu jakin bat bertara joatea komeni den edo ez erabakitzea.

### 12.2-Eginkizunak:

- a) Elkarbizitzari buruzko urteko plana egin Behatokiarekin batera eta Eskola-Kontseiluari aurkeztea.
- b) Eskolako elkarbizitzaren funtzionamendua zaintzea.
- c) Tokia, denbora eta antolaketari dagokionez, eskolako giroa hobetzeko proposamenak egitea.
- d) Arazoak sor ditzaketen egoerak detektatzea, estamentu guztien arteko komunikazioa ezin hobea izan dadin arreta berezia jarriz.
- e) Estamentu bakoitzari zein eskubide eta betebeharrak dituen jakinaraztea eta arazoak nola bideratu behar dituen adieraztea.
- f) Eskolan sorturiko arazoak konpontzen laguntzea eta aholkua ematea, guztientzat era positiboan konpon daitezkeen, lehenik arazoa sortu zuen egoera konpontzen eta konponketa-prozesuan arreta berezia jarriz, aurrerantzean arazo handiagorik ez izateko.
- g) Ez-ohiko kasuetan Batzorde honek Keri proposamenak egin diezazkioke, berak erabaki ditzan.
- h) Urteko txostena egitea.

### 12.3-Funtzionamendua:

-Irakasleak gertaera baten aurrean gertaera-taula beteko du. Bertan behar diren datuak jarri gertatutakoa eta eman zaion konponbidea ere bai. Familiari bere berri eman beharko zaio.

-Elkarbizitzako Batzordeak gertaera-adierazmenen zerrendak aztertuko ditu noizbehinka.

-Irakasleek emandako konponbideak egokiak diren aztertuko ditu AJAn dagoen sailkapenaren arabera.

-Gertaerak edo irakasleak horrela eskatzen duenean, AJA aztertu eta konponbidea irakasleari azalduko zaio bertan jarrita dugun protokoloa martxan jarriz.

-Noizbehinka ETak gertaeren laburpen bat egingo du eta hilean behin ZTn aurkeztuko du. Hiruhileko bakoitzean EB ere elkarbizitzaren berri emango du.



### 13.- IKASTURTEKO ELKARBIZITZA -PLANA

( ikus eranskina UEP)

### 14.-ELKARBIZITZA-BEHATOKIA (EB)

#### 14.1-Definizioa

Ikastetxeko elkarbizitza kudeatzeko organoa da. Harreman positiboak eta elkarbizitza osasungarria eraikitzen laguntzea, horixe da bere xedea. Komunitateko kide guztiek baloratuak eta entzunak izango direla, eta, ikastetxean erabakiak hartzeko orduan, erantzukizuna eta partaidetza izango dutela ziurtatzeko, errespetua, elkarriketa, negoziazioa eta adostasuna oinarri hartuta.

Ikasleek parte hartzea funtsezkoa da eskola-giroan. Hori horrela dela ikus liteke ikerketa askotan. Ikasleen partaidetza zenbat eta txikiagoa, gatazka-maila orduan eta handiagoa izaten da, eta, alderantziz, partaidetza zenbat handiagoa, orduan eta arazo gutxiago.( Watkins y Wagner 1991.)

Pertenentzia- eta identifikazio-sentimendu hori garatu nahi izanez gero, oso lagungarria izango da ikasleak zentroaren funtzionamendu-dinamikan integratzea, haien iritziak entzutea, erabakiak hartzeko unean haiei galdetzea eta ikasleak kide aktibotzat hartzea.( Luis Barriocanal 2000.)

Horrela, eskola-giroa eta ikasleen arrakasta pertsonal nahiz akademikoa hobetuko da eta baita ere irakasle eta familiena, hau da, Eskola komunitate osoarena.

#### 14.2-Funtzioak

Elkarbizitza-Plana egin, osatu eta abiarazi nahi dugu, eta, gero, jarraipena eta ebaluazioa egin horretaz.

Estamentu guztien partaidetza aktiboa bermatu , familia, irakasle eta ikasleena.

Aukera eta tratu-berdintasuna zaindu ordu, prozesu eta harreman arlo guztietan.

- Hezkuntza-Komunitate guztiari harreman positiboak sustatzen laguntzeko jarduerak proposatuko ditu beste estamendu batzuekin elkarlanean: topaketak, jaialdiak, desioak eta sentimenduak adierazteko kartelak, antzerki-taldeak, gorputz-adierazpenerako tailerrak, erlaxazioa, hainbat gairi buruzko eztabaidak, gatazkak konpontzeko gaitasunak eta komunikazio-ahalmenak landu...
- Guztion artean elkar zaintzeko kultura garatzea; norberaren burua eta gainerakoena zaintzeak aberastasun- eta poztasun-iturri bezala hartuta.
- Ikastetxearen elkarbizitza-arauak aztertuko ditu; araudiaren diagnostikoa egin eta hobetzeko neurriak ere implementatuz.
- Berdinen arteko balizko tratu txarrak edota indarkeriazko kasuak detektatu (triptikoak dibulgatu, galdeketak, soziogramak, testak...) eta adostutako-neurriak lehenbailehen martxan jartzen direla bermatu.
- Informazioa jasoko du, beste arlo batzuetan elkarbizitza nola garatzen den jakiteko, eta gure inguruan diren baliabideak eta ekimenak zein diren ezagutzeko.

- Lankidetzak sustatuko du inguruko beste erakunde, organizazio eta entitate batzuekin, elkarbitza positiboa eta kooperazio-kultura sustatzeko.
- Behatokiak egin behar duen lana plan batean jasoko da eta, ondoren, horren ebaluazioa eta urteko memoria egingo da.

#### 14.3- Kideak

1. Ikasketa-burua edota Zuzendaritza-Taldeko kideren bat.
2. Familia eta irakasleen ordezkariak.
3. Ikasleen ordezkariak
4. Administrazioako arduraduna.
5. Orientazio-saileko arduraduna
6. Udal Ordezkari bat.

Sektore bakoitzak ahaleginu behar du bere taldea antolatzen eta taldekideak dinamizatzen, era horretara, kide guztiek partaidetza aktiboa izan dezaten.

#### 14.4- Funtzionamendua

Behatokiak berak zehaztuko du zein izango den funtzionamendua; horretarako, betiere, behatokiaren helburuak, asmoak, zereginak, baliabideak eta partaide-kopurua izan beharko ditu aintzakotzat.

Bere funtzioak era egokian bete ditzan, gutxienez, bost komunikazio egingo ditu:

- Urrian, ikasturtearen hasieran (UBPren eraketa eta difusioa, EK aren bileran)
- Abenduan ( hiruileko balorazioa idatziz).
- Otsailean (UBPren jarraipena eta ebaluazioa, EK aren bileran)
- Apirilean ( hiruileko balorazioa, idatziz).
- Ekainean, ikasturte amaieran (ebaluazioa eta memoria, EKaren bileran).